



Egilea:  
2018ko urtarrila



Dokumentu honetan jasotzen dira lhobek Kontratazio Publiko Berdearen proiektuaren esparruan 2017an gauzatutako jarduerak. Zeregin horiek hiru jarduera-arlo hauetan banantzen dira:

- 1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN LIZITAZIOETAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK TXERTATZEAREN JARRAIPENA**
- 2. EAEKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020RAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA**
- 3. PROGRAMAREN ILDO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA**

## **1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN LIZITAZIOETAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK TXERTATZEAREN JARRAIPENA**

2016ko lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzearen jarraipenik ez da egin 2017ko ekitaldian. Izan ere, aldaketa handiak egon ziren Eusko Jaurlaritzaren organigraman eta antolaketa-egitura berriko kontratazio arduradunetan ere, eta horrek, eragotzi egin du aurreko ekitaldiko kontratazioei buruzko datuak biltzea.

Hala ere, Ihobek Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin jardun du Eusko Jaurlaritzaren lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzearen jarraipena egingo duen tresna sartzeko bere kontratazio elektronikoen plataforman. Horrek, sinplifikatu egingo du erosketaren berdearen jarraipena eta posible egingo du jarraipen hori nahiz eta antolaketa aldaketak gertatu.

## **2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020RAKO PROGRAMA**

Nahiz eta programa hau 2016ko irailean onartu eta trakzio-taldea 2016ko azaroan bildu lehenbizi, hauteskunde autonomikoen ondorioz Eusko Jaurlaritzan gertatutako aldaketek, aldi berean, aldaketak ekarri zituen trakzio-talde horretan parte hartu behar zuten Sailetan eta ordezkariengan ere. 2017an zehar, Eusko Jaurlaritzaren egungo egiturara egokituko den trakzio-taldearen osaera berria landu da eta parte-hartzaile batzuekin jarduketa indibidualak egin dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde hauek atxiki dira programara 2017an:

- |  |                                     |
|--|-------------------------------------|
| 1. Udalsarea 21                                  | 11. Mutualia                        |
| 2. Euskal Irrati Telebista                       | 12. Donostiako Udala                |
| 3. Legazpiko Udala                               | 13. Beterri Kostako Industrialdea   |
| 4. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla           | 14. Sprilur                         |
| 5. Energiaren Euskal Erakundea                   | 15. Goierri-Urola garaiko ESI       |
| 6. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal                | 16. Goierri Beheko Industrialdea    |
| 7. Deba Bailarako Industrialdea                  | 17. Abanto Zierbenako Industrialdea |
| 8. Urolako Industrialdea, SA                     | 18. Bilboko Udala                   |
| 9. Arabako Industrialdea, SA                     | 19. Gasteizko Udala                 |
| 10. Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, SA |                                     |

**19 atxikimendu programara**

EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programak 5 LERRO ESTRATEGIKO ditu eta 19 jarduera zehatz. Hauek dira lerro estrategikoak:

- 1. LE: Inplementaziorako edukia eta tresnak.**
- 2. LE: Kontratazio-prozeduretan integratzea.**
- 3. LE: Prestakuntza eta trebakuntza.**
- 4. LE: Merkatuarekin koordinatzea.**
- 5. LE: Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana.**

Jarraian daude bilduta 2017an egin diren programako jarduerak eta haietako bakoitzaren gauzatze-maila.



# LERRO ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO EGINDAKO JARDUERAK

## 1. LERRO ESTRATEGIKOA: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK

---

### 1. JARDUKETA: *Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea.*

- **1. EKINTZA:** Argitalpenen, Ibilgailuen eta Eraikingintzaren kapituluak eguneratzea.

Berrikusi eta eguneratu egin dira **Argitalpen, Ibilgailu eta Eraikingintzak** produktu-kategoriako kapituluak. Hauek biltzen ditu kapitulu bakoitzak: kapitulu orokorra, hiru eskakizun mailetako ingurumen-irizpideak, hiru eskakizun mailetako hornitzaileentzako kontrol-zerrenda, laburpen-fitxa eta zuzeneko erosketarako irizpide erraztuen kapitulua.



Argitalpenen berrikuspena administrazioaren eta sektorearen ordezkariekin egindako truke jardunaldi batean egin zen. Ibilgailuen berrikuspenari dagokionez, sektore horretan Europan egin diren araudi-aldaketetan eta efizientzia energetikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Dekretuan oinarrituta egin zen berrikuspena, eta EEE-Energiaren Euskal Erakundearekin koordinatuta.



Dokumentu horiek itzuli ondoren, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburuan sartuko dira. Gidaliburua Erosketa Publiko Berdea web-atalean dago argitaratuta, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.

- **2. EKINTZA:** Kale-bideen garbiketa eta hondakin-bilketa, garraio publikoa eta energia-hornidurari buruzko kapitulua lantzea.

Lehendabiziko bi zerbitzu-kategorietarako (hondakinak eta garraioa), gidaliburuko kapituluak, laburpen-fitxa, irizpide zabalak, kontrol-zerrenda eta irizpide erraztuak argitaratu dira.



Energia-horniduraren kategoria landuta dago baina argitaratzeke.

Kategori horiek garatuta, osatuta geratu dira EAEko Erosketa Berdearen 2020rako Programak lehenesten dituen kategoria guztietarako ingurumen-irizpideak.



Irizpide horiek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburuan kontsultatu ahal izango dira. Gidaliburua Erosketa Publiko Berdea web-atalean dago argitaratuta, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.



### 1. jarduketa: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratu eta zabaltzea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Programan lehenetsitako talde eta produktuetatik, irizpideak berrikusi edota garatuta dauzkatenen ehunekoa.
	% 100, 2018rako ezarritakoari begira.
	% 100, 2020rako ezarritakoari begira.

### 2. JARDUKETA: Lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako eredu-pleguen proposamenak egitea.

- **1. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian jasotzen dituzten lehenetsitako produktu/zerbitzuak kontratatzeko pleguen benetako 5 eredu identifikatu eta argitaratu dira.

Horietako bakoitzean, (eraikinen garbiketa, funtzio anitzeko ekipoak, ibilgailuak, paperezko azalak eta hondakin-bilketa) nabarmendu egin dira irizpideak eta EAEko administrazio guztien eskura jarriko dira lhoberen webguneko [erosketa berdearen](#) atalean.



### 2. jarduketa: Eredu-pleguen proposamenak egitea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Programan lehenetsitako taldeetatik, eredu-agiria eskuragarri daukatenen ehunekoa.
	% 25, 2020rako ezarritakoari begira.

### 3. JARDUKETA: Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea.

- **1. EKINTZA:** Erosketa publikoa ekonomia zirkularrerako.

Irailean egin zen “Ekonomia zirkularra sustatzeko kontratazioa” izeneko jardunaldia, honako helburuarekin: kontratazio publikoaren nahiz pribatuaren bitartez ekonomia zirkularra sustatzeko dimentsio eta aukera ezberdinen oinarriak aurkeztu eta ezartzea, baita ildo horretan har daitezkeen estrategia ezberdinak ere (produktu birziklatuak erosi, zerbitzazioa, eta abar). Jarduera hori 3. lerro estrategikoan (Prestakuntza eta trebakuntza) kontabilizatuko da.



Jardunaldi horren emaitza da ideien koaderno hau: **“KONTRATAZIO ZIRKULARRA: “EKONOMIA ZIRKULARRA NOLA SUSTATU EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREKIN”**. Laster argitaratuko da lhoberen webgunean.

### 3. jarduketa: Esparru berritzailetan ekintza pilotuak egitea.

#### Jarraipen-adierazlea:

Egin eta dokumentatutako ekintza pilotuen kopurua (urtekoak eta pilotua).

2 jarduera abiarazi dira, zorrozki proiektu pilotuak ez direnak.

### 4. JARDUKETA: *Laguntza teknikoa ematea.*

- **1. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak txertatzeko 41 jarduera egin dira.

Euskal administrazioari laguntzeko 41 jarduera egin dira; haietatik, 28 pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko laguntza-eskaerak dira eta 13 kontsultak.

Laguntza-eskaera horiek egin dituztenak, sektore publikoko 18 erakunde izan dira. Egindako 41 kontsultetatik, Eusko Jaurlaritzako Sailek egin dituzte 9; Jaurlaritzarenak diren erakunde edo sozietateek 13, toki-erakundeek 7 eta foru-aldundiek, Bizkaiko Foru Aldundiak, hain zuzen, 13.

- **2. EKINTZA:** Ingurumen-klausulak jarraibide eta prozeduretan sartzen laguntzea.

Ekintza horretarako, hainbat dokumentu prestatu dira:

- Jarraibidea, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuarentzat, Jaurlaritzako Sail ezberdinek argitaratzen dituzten lizitazioetan ingurumen-irizpideak nola txertatu azaltzen duena.
- Jarraibidea, Ogasun eta Ekonomia Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarentzat, Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programan lehenetsitako produktu-, obra- eta zerbitzu-multzoetan ingurumen-klausulak nola txertatu azaltzen duena.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko obra-kontratazioetarako gidalerroetan ingurumen-klausulak txertatzea.
- **3. EKINTZA:** 9/2017 Legeari buruzko txosten juridikoa lantzea.

Txosten juridikoa egin da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Lege berrian, kontratazio publikoan ingurumenari buruzko alderdiak txertatzeari buruz.



#### 4. jarduketa: Laguntza tekniko ematea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Jasotako eskaeren kopurua eta erantzunen ehunekoa.
	<b>2017:</b> 28 eskaera ingurumen-irizpideak txertatzeko. 13 kontsulta. 3 jarraibide/landutako prozedura. 1 jarduera osagarria. <b>GUZTIRA: 45 eskari jasota eta % 100 erantzunda.</b>  <b>METATUTA: 104 laguntza eskari jasota (2016an 59 + 2018an 45) eta horietatik %100 erantzunda.</b>

#### 5. JARDUKETA: Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea.

- **1. EKINTZA:** Zuzeneko erosketako 8 fitxa egitea.

2017an zehar 8 produktu- eta zerbitzu-multzoetarako zuzeneko erosketako fitxak egin dira, oraindik egin gabe baitzeuden. Hauek dira: vending-zerbitzuak, noizean behingo catering-zerbitzuak, catering-zerbitzu iraunkorrak, aholkularitza-zerbitzuak, inprimatze-zerbitzuak, bidaia-zerbitzuak, autobuseko garraio-zerbitzuak eta bulegoko materialen hornidura-zerbitzuak.



Eskura daude dagoeneko Ihoberen webgunean, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus), Erosketa Publiko Berdearen atalean.

Programan bildutako gainerako kategorientzat ez dira zuzeneko erosketarako irizpideak garatu, oso konplexutzat jo direlako edo eragin gutxi dutelako zuzeneko erosketarako (eraikingintza, urbanizazioa, azpiegiturak...) Horrela bada, zuzeneko erosketarako jada landuta dauden 13 fitxekin aztertutzat jotzen da zuzeneko erosketarako fitxa izan ditzaketen kategorien %100.

#### 5. jarduketa: Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Gidaliburuko taldeetatik, zuzeneko erosketarako edota erosketa pribaturako fitxak egin zaizkien ehunekoa.
	% 100 (13, lehenetsitako 20 produktuetatik).  *zuzeneko erosketarako jada landuta dauden 13 fitxekin aztertutzat jotzen da zuzeneko erosketarako fitxa izan ditzaketen kategorien %100.

## 2. LERRO ESTRATEGIKOA: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN SARTZEA

### 6. JARDUKETA: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea.

- **1. EKINTZA:** Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzeko proposamena.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila hasi da Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzen, lhobek egindako proposamenak sartzeko, administrazioek euren lizitazioetan, besteak beste, ingurumenaren aldagaia kontuan hartzen dutela ziurtatzeko.

Proposamen bat landu da EAEko gaur egungo kontratazio-plataforma garatzeko, ingurumen-klausulak, klausula sozialak eta abar txertatzea ala ez sartzeko.

#### 6. jarduketa: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Parte hartzen duten administrazioetatik, jarduera egin dutenen kopurua eta ehunekoa.
	1 (Ogasun eta Ekonomia Saila) + (2. ekintzatik datorrena/4. jarduketa-Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarentzako Jarraibidea). <b>GUZTIRA: 2</b> Ehunekoa atxikitako administrazioekiko da eta kontratazio-tresna ere ez dago jarduteko prest lantzen ari diren aldaketekin; beraz, ekitaldi honetan ez da egokia hura kalkulatzea.

### 7. JARDUKETA: Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozedurak birdefinitzea.

- Horren inguruan ez da ekintza zehatzik egin; izan ere, administrazioak urte amaieratik baino ez daude Programara atxikita. Ez dute, beraz, prozesuak aztertzeke ez eta aldatzeko astirik izan.

#### 7. jarduketa: Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozedurak birdefinitzea.

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Parte hartzen duten administrazioetatik, erosketa eta kontratazio publiko berdeko prozedurak dauzkatenen kopurua eta ehunekoa.
	e.a. (urte amaiera arte ez da atxikimendurik egon eta atxikitako administrazioak 2018rako planak definitzen ari dira).

## 8. JARDUKETA: Zentralizatutako erosketak publiko berdea sustatzea.

- **1. EKINTZA:** Arabako Foru Aldundiko kontratazio zentrala sortzea.

2016ko urte amaieran, uztailan egindako erosketak zentralizatuari buruzko jardunaldiaren ondoren, jardunbide on bi landu ziren kontratazio zentralen eredu ezberdin bi aintzat hartuta, Udaltalde 21ena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Horrez gain, truke-bilera bat antolatu zen hiru hiriburuen eta hiru aldundien artean, eta bilera horretan iragarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiak aldundiaren erosketak zentrala sortuko zuela. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, 2017ko lehen hiruhilekoan iragarri du bere erosketak zentrala.

- **2. EKINTZA:** Erosketak zentralen lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea.

Erosketak zentralak 2017an abiarazitako zenbait lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzen lagundu du ihobek, hala eskatu baitzaio. Zentral gehienek ingurumen-irizpideak sartzen dituzte dagoeneko egiten dituzten lizitazioetan.

### 8. jarduketa: Zentralizatutako erosketak publiko berdea sustatzea.

#### Jarraipen-adierazlea:

Baterako erosketak sustatzeko egindako ekintzen kopurua.

Era jarraituan eman zaio laguntza BFaren erosketak zentral sortu berriari, bere mende dauden lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko.

Zentralizatutako erosketak edota ezarritako erosketak zentralak: 5

Ezarritako erosketak zentral 1 (guztira 5 daude EAEn, bana foru-aldundi bakoitzean, bat Eusko Jaurjaritzan eta bat Udaltalde 21ean).

BFAk, 2017an argitaratutako 6 lizitazioetatik 5 lizitazioetan txertatu ditu ingurumen-irizpideak ([ikusi hemen](#)).

### 3. LERRO ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

#### 9. JARDUKETA: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea.

- **1. EKINTZA:** 6 jardunaldi tekniko egitea.

Urtean zehar, prestakuntza-jardunaldi hauek egin ziren, administrazioarentzat:

- Ingurumen-ziurtagiriak ulertzea eta haien erabilera kontratazio publikoan.
- Eskaintza arrakastatsuak ingurumen-irizpideak dituzten argitalpenen lizitazioetan.
- “Ekonomia zirkularra” sustatzeko kontratazioa.
- Nola egin lorezaintza jasangarria hiri-eremu publikoetan.
- EAEn modu jasangarrian urbanizatzeko, birgaitzeko eta eraikitzeko gidaliburuak. Kontratazio pribatuan eta publikoan aplikatzeko tresna teknikoak.
- Obra sustatzaileentzako trebakuntza-jardunaldia BFAn.

#### 9. jarduketa: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea.

##### Jarraipen-adierazlea:

Eskaintako prestakuntza-ikastaroen kopurua, urtean eta guztira.

**6 ikastaro** eskainita (2016an 8 + 2017an 6 = 14 guztira).

Prestakuntza-ikastaroetan parte hartu dutenen kopurua.

**252 pertsona** aurten (2016an 232 + 2017an 252 = 484 guztira).

Jasotako prestakuntzaren balorazio positiboa egiten duten parte-hartzaileen ehunekoa.

Parte-hartzaileen % 100ek egiten dute jardunaldiaren balorazio positiboa.

*Jardunaldiaren balorazio positibotzat jotzen da 6,67tik gorako puntuazioa, jardunaldiaren gogobetetasun globalari buruz).*

#### 10. JARDUKETA: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea.

- **1. EKINTZA:** Erosketa eta kontratazio publiko berdean autoikaskuntzarako material espezifikoak prestatzea.

2017an, lantzen hasita daude autoprestakuntzako 8 modulu eta 4 ariketa praktiko, administrazio langileek erosketa eta kontratazio publiko berdeko oinarriko ezagutzak eskura ditzaten eta modu autonomoan aplikatu. Prestakuntza-jardunaldien esparruan landuta eta Ihoberen webgunean eskura daitezkeen materialen osagarri dira modulu horiek.

Hauek dira moduluak:

1. Erosketa eta kontratazio publiko berdea babesteko marko politikoa eta bere onurak.
2. Pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko marko legala.
3. Ingurumen-ziurtagiriak ulertu.
4. Erosketa eta kontratazio publiko berdea hasieratik, plangintzan zehar.
5. Ingurumen-irizpideak nola txertatu pleguan lhoberen baliabideak erabilita.
6. Lizitazioaren ondorengo jarraipena.
7. Erosketa eta kontratazio publiko berderako eskura dauden baliabideak.
8. Indartzen ari diren eremuak: Bizi-zikloaren kostuak.



#### 10. jarduketa: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea .

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Zenbat jarduera garatu diren.
	<b>8 modulu</b> prestatu dira autoikaskuntzarako.
	Moduluak egiten dituzten parte-hartzaileen kopurua.
	Prestakuntza-moduluak ez dira lhoberen webgunera igo eta oraindik ez daude erabilgarri.

#### 11. JARDUKETA: Sentsibilizazio-ekintzak egitea aldian-aldian.

- **1. EKINTZA:** Laburpen-fitxak egitea.

lhoberen webgunean argitaratutako Erosketa eta kontratazio publiko berdearen gidaliburuan bildutako produktu-multzo guztiek dituzte laburpen-fitxak eta gidaliburuaren kapituluak eguneratzen direnean fitxak ere eguneratu egiten dira (1. jarduketa). Aurten Argitalpenen eta Ibilgailuenak eguneratu dira.

- **2. EKINTZA:** Erosketa berdeko materialetarako esteka.

2017an Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin jardun da [www.contratación.euskadi.eus](http://www.contratación.euskadi.eus) webgunean lhoberen erosketa berderako esteka bat sartzeko, baita erosketa berdeko irizpideetara zuzeneko esteka bat sartzeko ere kontratazioko aplikazioan.

Bilboko Udalak erosketa berdeko irizpideetarako esteka sartu du bere intranetean eta udal teknikari guztiek dute eskura.

- **3. EKINTZA:** Komunikazio eta sentsibilizazio jardunaldiak egitea.

Ekainean, Udalsarea Batzordeak komunikazio eta sentsibilizazio jardunaldi bat antolatu zuen. Jardunaldi horretan aurkeztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programa eta Udalsarea 21 formalki atxiki zen Programara.

**11. jarduketa: Sentsibilizazio-ekintzak egitea.**

<b>Jarraipen-adierazlea:</b>	Egindako sentsibilizazio-jarduketaren kopurua.
	Gauzatutako jarduketak: 4
	Gidaliburuko multzoetatik, fitxa laburrak (laburpen-fitxa) dauzkatenen kopurua eta ehunekoa.
	Gidaliburuko multzoen %100ek.

## 4. LERRO ESTRATEGIKOA: MERKATUAREKIN KOORDINATZEA

### 12. JARDUKETA: *Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzea.*

- **1. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak enpresa-sektorearekin egiaztatzea 2 produktu-kategoriarentzat.

Urte honetan zehar enpresa-sektorearekin egiaztatu dira irizpideak argitalpenen eta ibilgailuen (turismoak eta ibilgailuak bakarrik) kategorietan. Lehenengo kasuan, jardunaldi tekniko bat eta lineako kontsulta egin dira, eta bigarren kasuan, lineako kontsulta bakarrik.



Industria sektorearekin ere egiaztatu dira irizpideak, energia-horniduren kategoriarako hain justu. Banaka egin da, irizpideak egiaztatzeko irekitako deialdiak erantzun urria izan baitzuen.

#### 12. jarduketa: *Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzea.*

Jarraipen-adierazlea:	Egindako foroen kopurua.
	<b>3 foro</b> egin dira irizpideak lantzeko (energia-horniduren kategoriako banakako egiaztatzeak ere foro osagarritzat hartu dira kontuan).
	Parte hartu duten enpresen kopurua (foro bakoitzeko eta guztira).
	<b>19 parte hartzaile</b> foroan (16 argitalpenen foroan eta 3 energia-hornidurenean).

### 13. JARDUKETA: *Hornitzaileen eta erosleen arteko topaketak antolatzea.*

- Ez da ekintzarik egin 2017an.

#### Jarduketa: *Hornitzaileen eta erosleen arteko topaketak antolatzea.*

Jarraipen-adierazlea:	Zenbat saio egin diren.
	-
	Parte hartu duten erakundeen kopurua (saio bakoitzeko eta guztira).
	-

#### 14. JARDUKETA: *Berrikuntzaren erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea.*

- **1. EKINTZA:** Europako PACE proiektu-proposamenean parte hartzea.

“Kontratazio zirkularra” hedatzeko Europako proiektu-proposamen batean parte hartzen duten administrazioen artean dago lhobe. Kontratazio publikoaren bitartez, ekonomia zirkularra sustatzea da helburua. Proposamena Erresuma Batuko WRAPek eta Herbeheretako Azpiegitura eta Ingurumen Ministerioak koordinatzen dute.

14. jarduketa: Berrikuntzaren erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea.	
Jarraipen-adierazlea:	Bideratutako ekintzen kopurua.
	1
	Parte hartu duten erakundeen kopurua (ekintza bakoitzeko eta guztira).
	1

#### 15. JARDUKETA: *Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea.*

- **1. EKINTZA:** Prestakuntza-jardunaldi 1 egitea enpresa-sektorearentzat.

“Eskaintza arrakastatsuak ingurumen-irizpideak dituzten argitalpenen lizitazioetan” izeneko jardunaldia egin zen irailean. Jardunaldi horren helburua izan zen informazio praktikoa ematea eta argitalpenen sektoreko enpresek administrazioaren ingurumen-eskakizunei nola eta zer tresnarekin erantzun ezagutaraztea (12. Jarduketarekin koordinatuta).

15. jarduketa: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea.	
Jarraipen-adierazlea:	Antolatutako ikastaro-kopurua.
	1 jardunaldi.
	Enpresa parte-hartzaileen kopurua.
	16 parte-hartzaile.



## 5. LERRO ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA SAREKO LANA

### 16. JARDUKETA: *Dibulgazio-ekintza erregularrak egitea.*

- **1. EKINTZA:** 5 albiste argitaratu dira.

2017an erosketa publiko berdearen arloko 5 albiste argitaratu dira [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webean.

16. jarduketa: Dibulgazio-ekintza erregularrak egitea.	
Jarraipen-adierazlea:	Egindako dibulgazio-jarduketaren kopurua.
	Gauzatutako jarduketak: 5

### 17. JARDUKETA: *Jardunbide egokiak zabaltzea.*

- **1. EKINTZA:** 4 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu egitea.

2017an ingurumeneko jardunbide egoki eta bikaintasun-kasu hauek garatu dira:

- Uribe-Kostako Mankomunitatea, Mugikortasun jasangarrirako zerbitzuak: BIZIMETA eta UKANAUTO.
- Maruri-Jatabeko Udalaren lokal batean txikizkako denda "berde" bat jartzeko emakida pribatiborako baldintza-pleguan ingurumen-irizpideak sartzea.
- Bizkaiko Foru Aldundia, Aldundiaren kontratazio zentrala eta bere lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea.
- Ingurumen-bikaintasuneko kasu praktikoa eraikingintza/eraikuntza jasangarrian. Euskal Herriko meatzaritzaren parke kulturala - Abanto-Zierbenako Udala.

Egindako jardunbide egoki horiei joera txostenetan egiten diren aipamenak gehitu behar zaizkie. Txosten horietan, apartatu bat dago non EAEko administrazioaren eta beste geografia eremu batzuetakoen lan ona berariaz jasotzen den.

17. jarduketa: Jardunbide egokiak zabaltzea.	
Jarraipen-adierazlea:	Argitaratutako jardunbide egokien kopurua (urtean eta guztira).
	3 jardunbide egoki argitaratu dira 2017an (4 argitaratu dira 2016-2017 bitartean).
	Bikaintasun-kasu 1 argitaratu da 2017an.

**18. JARDUKETA:** Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea.

- **1. EKINTZA:** 2017ko emaitzen lehen txostena egitea argitaratzeko.

18. jarduketa: Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea.	
Jarraipen-adierazlea:	Argitaratutako emaitzen txostenen kopurua.
	2 txosten, 2016 eta 2017koak (egina, baina argitaratzeke).

**19. JARDUKETA:** Europako edota nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea.

- **1. EKINTZA:** Procura+ kanpaina parte hartzea.

Ihobek Procura+ kanpaina parte hartzen du. Helburu orokorra Europako eta nazioarteko lider nagusiek erosketa publiko berdearen arloan zer egiten duten ezagutu eta haiekin euskal esperientzia partekatzea da.

Kanpaina horren esparruan 1 jakinarazpen egin zaizkio talde osoari, Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020 programara Udalsarea 21 atxiki zela jakinarazteko.

- **2. EKINTZA:** Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat argitaratzea Europako Batzorderako.

Europako Batzordearen erosketa berdeari buruzko 73. buletinean (2017ko uztaila), EAEko kontratazio publiko berdea babesteko markoari buruzko praktika egoki bat argitaratu da [http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/news\\_alert/Issue73\\_Case\\_Study\\_147\\_BasqueCountry.pdf](http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/news_alert/Issue73_Case_Study_147_BasqueCountry.pdf).

**GPP** News Alert

- **3. EKINTZA:** Europako GPPBest proiekturako, Ihoberen aholkularitza-kontratuen jarraipenari buruzko praktika egoki bat argitaratzea.

Italian erosketa berdea sustatzeko GPP Best europar proiektuaren partzuergoak praktika egokien bilduma bat argitaratu du eta horien artean dago bilduta Ihobek bere aholkularitza-kontratuaren aplikatzen zuen jarraipen prozedura, alegia, kontratuaren eskatutako ingurumen-irizpideak betetzen zirela egiaztatzea, [http://www.gppbest.eu/?page\\_id=25&lang=en](http://www.gppbest.eu/?page_id=25&lang=en)



- **4. EKINTZA:** Euskal Autonomia Erkidegoaren erosketa eta kontratazio publiko berdearen hedapenak ORU Fogar Eskualde Batuen Erakundearen saria jaso zuen.

Irabazi asmorik gabeko elkarte den eta egungo globalizazio testuinguruan eskualde gobernuen eta estatu federatuen ahotsa izan nahi duen ORU Fogar Eskualde Batuen Erakundeak aintzatetsi egin du EAEko administrazio publikoen eremuan Eusko Jaurlaritzak egin duen erosketa eta kontratazio publiko berdearen hedapenaren balioa. Gasteizen azaroaren 28an egindako Eskualdeen Mundu Foroa eta Batzar Nagusian banatu ziren sariak. Foro horretan egon ziren hainbat herrialdeetako gobernadore, eskualdeko lehendakari eta prefetak.



**20. jarduketa: Europako edota nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea.**

Jarraipen-adierazlea:	Egindako jardueren kopurua:
	Egindako jarduerak: 4

## JARDUKETEN LABURPENA

<b>1. LE: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK</b>	<b>1. JARDUKETA:</b> Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea.	1. Argitalpenen, Ibilgailuen eta Eraikingintzaren kapituluak eguneratzea. 2. Kale-bideen garbiketa eta hondakin-bilketa eta garraio publikoari buruzko kapitulua argitaratzea eta energia-hornidurari buruzkoa prestatzea.
	<b>2. JARDUKETA:</b> Eredu-pleguen proposamenak egitea.	3. Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian jasotzen dituzten lehenetsitako produktu/zerbitzuak kontratatzeko pleguen benetako 5 eredu argitaratzea.
	<b>3. JARDUKETA:</b> Jarduera pilotuak abiaraztea esparru berritzaileetan.	4. Ekonomia zirkularrerako erosketa publikoari buruzko jardunaldia eta kontratazio zirkularrari buruzko dokumentua prestatzea.
	<b>4. JARDUKETA:</b> Laguntza tekniko pertsonalizatua eskaintzea.	5. Ingurumen-irizpideak txertatzeko 41 jarduera egin dira. 6. Eusko Jaurlaritzan erosketa berderako 3 jarraibide/prozedura egiten laguntzea. 7. Sektore publikoko kontratuei buruzko Lege berriari buruzko txosten juridikoa prestatzea.
	<b>5. JARDUKETA:</b> Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea.	8. Zuzeneko erosketako 8 fitxa egitea
<b>2. LE: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN SARTZEA</b>	<b>6. JARDUKETA:</b> Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea.	9. Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-plataforma aldatzeko proposamena.
	<b>8. JARDUKETA:</b> Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea.	10. Arabako Foru Aldundiko kontratazio zentrala sortzea. 11. Erosketa-zentralen lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea.
<b>3. LE: PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b>	<b>9. JARDUKETA:</b> Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea.	12. 6 jardunaldi tekniko egitea.
	<b>10. JARDUKETA:</b> Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea.	13. Erosketa eta kontratazio publiko berdean autoikaskuntzarako material espezifiko prestatzea.
	<b>11. JARDUKETA:</b> Sentsibilizazio-ekintzak egitea aldian-aldian.	14. 2 laburpen-fitxa eguneratzea. 15. Erosketa berdeko materialetarako esteka. 16. Komunikazio eta sentsibilizazio jardunaldi 1 egitea

<b>4. LE: Merkatuarekin Koordinatzea</b>	<b>12. JARDUKETA:</b> Fabrikatzaileak eta hornitzaileak irizpide teknikoak egiteko prozesuan inplikatzeko.	17. Ingurumen-irizpideak enpresa-sektorearekin egiaztatzea 2 produktu-kategoriarentzat.
	<b>14. JARDUKETA:</b> Berrikuntzaren erosketa-prozesuan parte hartzea erraztea.	18. Europako PACE proiektu-proposamenean parte hartzea.
	<b>15. JARDUKETA:</b> Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea.	19. Prestakuntza-jardunaldi 1 egitea enpresa-sektorearentzat.
<b>5. LE: Komunikazioa, Zabalkundea eta Sareko Lana</b>	<b>16. JARDUKETA:</b> Dibulgazio-ekintza erregularrak egitea.	20. 5 albiste argitaratu dira.
	<b>17. JARDUKETA:</b> Jardunbide egokiak zabaltzea.	21. 4 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu argitaratzea.
	<b>18. JARDUKETA:</b> Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea.	22. 2016 eta 2017ko emaitzen txostena prestatzea.
	<b>19. JARDUKETA:</b> Europako edota nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea.	23. Procura+ kanpainan parte hartzea. 24. Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat argitaratzea Europako Batzorderako. 25. Ihoben erosketa publiko berdeko jardunbide egoki bat argitaratzea GPPBest proiekturako. 26. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen hedapenak ORU Fogar Eskualde Batuen Erakundearen aintzatespena jaso zuen.